

## KOLOREEN MUNDUA

### 0. Edukiak

Diskriminazioa.

### 1. -Definizioa

8 urtetatik gorako gaztetxoekin burutu daitekeen dinamika da eta kopetan jarritako pegatinen arabera taldeak egitea da.

### 2. -Helburuak

- Pertsona batengana hurbiltzeko berdintasunak edo ezberdintasunak nola eragiten duen ikusi eta gure jarreraren irizpideak aztertu.
- Talde baten barruan sartzen garenean edo eta talde batetik baztertuak izatean zer nolako sentazioa ditugun ikusi.

### 3. -Partiaideak

15 laguneko taldea.

Adina: 8 urtetatik aurrera.

### 4. -Materiala

Kolore ezberdinetako pegatinak: kolore berdineko 4 edo 5 eta 3 edo 4 ezberdinak (kolorerik gabe, bestelako kolorea edo gehiengoak duenaren antzeko tonoa).

### 5. -Hasierako oharra

Talde handia.

### 6. -Garapena

Partaideak borobilean jarriko dira eta begiak ixten dira. Animatzaileak partaide bakoitzaren kopetan pegatina itsatsiko du, albokoei kolore ezberdinak jartzen Isatsten zuen bitartean zera aipatuko du: "bukatzerakoan, begiak ireki eta HITZIK EGIN GABE taldeak sortuko dituzue espazioan argi eta garbi ikusten direlarik". Taldeak sortu direnean eta argi eta garbi banaturik, ebaluaketa burutuko da.

### 7. -Ebaluaketa

Ebaluaketari hasiera ematen zaio

Zein izan d ataldeak sortzeko irizpidea? Zergatik? Ohikoa al d ataldeak kolore berdinekoen artean sortzea? Ez al dago bestelako irizpide posiblerik: ortzadar taldea, nahasiak, etiketa kontutan izan gabe,..? zergatik hurbildu gara antza gehien dugun albora? Ze pentsatu zuten eta sentitu talde gabe geratu direnak? Ze pentsatu zuten gainontzekoak? Nor jabetu zen egoeraz? Eguneroko bizitzarekin loturarik ba al du: bazterkeria adibidez?.

### 8. -Iturria

Paco Cascón, Bizitza eta bakerako heziketako Ertameriketako II tailerra heziketa, San Salvador, 1992.